

FUNTSEZKO BALIABIDEAK



Gure empresa aurrera eramateko era desberdinetako baliabideak erabiliko ditugu; hauek, hiru multzotan banatuko dira: baliabide fisikoak, giza baliabideak edo baliabide intelektualak eta baliabide ez-materialak.

Baliabide fisikoei dagokienez, bulegoa, biltegia eta denda izango dira garrantzitsuenetakoak; Hau da, produktu hauek bilduko diren espazioak. Hasteko, lokala herriko udalaren laguntzarekin lortu dugu, gure proiektuari buruzko ineteresa sortu baitzaio eta beraz, proiektu hau aurrera eramateko leku bat eskeini dugu. Jarraian, lokalaz gain, bulegoan eta biltegian zenbait material erabiliko ditugu; besteak beste, mahiak, biltagirako apalak, bulegorako altzairuak, arropa sintzilikatzeko hainbat esekitoki, ordenalagailuak, hainbat telefono; bezeroekin, profesionalekin edo taldekidekin komunikatuta egoteko, ahulkiak...

Giza baliabide edo baliabide intelektuei dagokienez, proiektua martxan jartzeko eta beronen funtzionamendua bermatzeko, nahikoa izango gara taldea osatzen dugun lau kideak. Hasteko, lehenengo kideak, komunikatzeko eta honen inguruko gaitasunak erabiliko ditu proiektuaren zerbitzura. Hau egiteko, sare sozialen eta webguneen inguruko trebetasunak baliatuko da. Jarraian, taldeko bigarren kideak, zenbakiekin eta diru kontuekin duen gaitasuna erakutsiz, gure administrazioako lanetan arituko da. Ondoren, taldeko hirugarren kidea, antolaketa, gaitasuna eta txukuntasunaren balioa erakutsiz, paketeak erregistratuko ditu eta behar bezala antolatzeko ardura hartuko du. Azkenik, laugarren taldekidea, produktu guztiak denda edo leku desberdinetara eramatera arduratuko da; Hau da, gidari edo banatzaile moduan. Bada guztiok amankomunean dugun funtsezko ezaugarri bat: Bertakoak garela eta beraz, gure proiektuaren xede den komunitatearen parte garela.

Baliabide ez-materialei dagokienez, arropa eta beste hainbat produktu batzuk saltzeko erabiliko dugun webgunea eta instagram oso garrantzitsuak izango dira; eta honek domenuaren eta hosting zerbitzuaren berrak dakartza besteak beste. Zentzu honetan, Bluehost plana aukeratuko dugu, urtean 108 € ordainduz.